

# Amasate

P R E S S

1997ko apirilak 25 • 360. zenb.

**Mundura  
etortzearen  
abentura**


**KULTURA: BAD F-LINE MUSIKA TALDEA • IKUSPEGIA: ITXARO ARTOLA  
IRITZIA: IÑAKI AREJOLALEIBA • KIROLAK: SANTIAGO MARTIN**



# egizabal

## Oinetakoak eta poltsak

Betikoak!  
Lau belaunaldiren  
bermea dugu.



Ferrerias, 9 • ARRASATE  
79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA  
76 12 28

# AG AMAGARA

**AMAGARA**  
Erdiko Kale, 54 etxabea  
ARRASATE • Tel: 79 09 09

## BULARRAK LEHEN PLANORA!

- Zergatik ez  
Eskote  
politarekin  
azal bikain  
eta bular  
tenteak izan?  
Posible da!



- "Mikroenkapsulatutako  
olio esentzialen"  
tratamendu BERRIA.
- Deitu eta konpromezu  
barik informatu. Ez  
itxaron gehiago.

# Abiadura handiko tranpak

Informazioaren gizarte honetan, komunikabideak eskuratu dute aintzina-nako profeten lekua. Eta aspaldion, mendebaldeko kulturak bere antojura moldatzen duen egutegiaren arabera, III. mileniuma datorrela eta, Aro Berria ari dira iragartzen. Onartu, onartzen dute naturak maiz ematen dizkigula oraindik, gure kontroletik at geratzen direlako, ikaritzen gaituzten ezustekoak. Halere, zientziak eta teknikak daramaten abiadura geldiezinari esker, gero eta hurbilago dakusate gure ingurunea menperatuko dugun eguna. Beraz, azken orduko azti hauen arabera, ezagutza teknologikoak munduaren aldaketa eragingo du baina, ertaroan natura eta



Itxaro Artola

**“Karril nagusitik ziber-kosmonautak joango dira eta bigarren mailakotik, info-alfabetatugabeak, biharko pariak”**

jainko ez materialen beldur bizi ziren lurtar kaikuek mundua amaituko zela sinestu izan zuten bitartean, guk, arrazoiaren seme-alabok, ondo dakigu prozesu iraultzaile baten gaudela. Baliabide teknikoek bi abiadurako gizartera garamatzate nonbait. Karril nagusitik, ziber-kosmo-

nautak joango dira eta bigarren mailakotik, garaietara moldatu ez diren info-alfabetatugabeak, biharko pariak. Lehenek paradisua lortuko ei dute; besteek, bazterketaren infernua. Ohartuta gaude, hortaz: Aro Berrirako

nahitaez jarraitu beharko diogu teknologiaren martxari, erronka berriek egunetik egunera aztoratuko gaituzte. Eta, jakina, “ardiak aztoraturik, edonora lasterka”. Gaitzerdi, -gogoratzen

digute- gurekin ditugun teknokrata eta turbokapitalistak, unibertsalismoa eta aukera berdintasunaren izenean, bidea argitzeko. Eta, gehiegikeriekin gure burua suntsitu ez dezagun, ezagutzaren erabilera zuzena zaintzeko berriz, biolegeria, polizia eta Osaba Sam. Egoera pribilegiatu honetan, zergatik kezkatu milaurte berriaren etorrera dela eta? Are gehiago, irten gaitezen gu bere bila! Konta ditzagun falta diren segundoak atzekoz aurrera! Etorkizun digitala Jauja, askatasunerako leihoa bailitzan saltzen digute baina, funtsean, sare bakarrak mundu osoa harrapatze-ko tranpa makiabelikoa da. Makina yanki bati lotuta bukatuko dute gure etxe inteligente, tele-lantoki, aisigune birtual, garraibide bideobijilatatu, diru magnetiko eta komunikazio mota guztiak. Herri desegituratuak, kultura kodifikatuak, menpekotasun integrala, teleñeko hutsak, argi ibiltzen ez bagara. Bien bitartean, denbora badoa eta gu berarekin. ■

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatza kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-do Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egujes, Marian Porcel. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orotengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saioa, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karnele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS paper**  
birziklatuan egiten da.

**Azala:** Goio Arana.

## 360. zenbaki honetan

1997ko apirilaren 25ean

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen ..	<b>10/12</b>	Kulturaren txokoa ..	<b>26/27</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Txutxumutxuak.....	<b>14/15</b>	Azoka plaza .....	<b>28/29</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Ikusi eta entzun .....	<b>33</b>
Euren ikuspuntutik .....	<b>8</b>	Kirolak jokoan.....	<b>20/23</b>	Foto zaharra .....	<b>34</b>

*Ikuspegia*  
**Itxaro Artola** ..... **3**

*Euren ikuspuntutik*  
**Iñaki Arejolaleiba**..... **8**

*Aurrez aurre*  
**Karina Ochoa eta Marga Flores** .... **24/25**

*Hogeita hamar galderatan*  
**Matilde Martin** ..... **30**

*Kulturaren txokoa*  
**Bad F-Line musika taldea**..... **26/27**

*Asteko gaia*  
**Erditzea**  
**Bizitza berri bat mundura**..... **17/19**

Erditze bakoitza mundu bat bada ere, erditze gela batean gertatzen dena aztertu nahi izan dugu.

25

ostirala

■ ZINEA

*¿De que se rien las mujeres?* Alai zinemari 7etan eta 10etan.

■ KONTZERTUA  
ARRASATE MUSIKALEN

Fagot eta oboe kontzertua Arrasate Musikaleko areto nagusian arratsaldeko 6.30etan.

■ KONTZERTUA  
MONTERRONEN

Pablo Moreno gitarrajo-  
learen kontzertua Monterro-  
nen arratsaldeko 7etan.

■ MOBILIZAZIO EGUNA

Setan manifestazioa Sebe-  
ron. Gestorak deituta.

■ ATERPEN KONTZERTUA

*Mal de ojo* talde donos-  
tiarraren kontzertua Aterpe  
tabernan gaueko 11etan. Sarre-  
ra dohainik.

26

larunbata

■ ZINEA

*Mars Attacks* Alai zine-  
man 5etan, 7.30etan eta  
10etan.

■ SAN FRANTZISKO  
XABIER IKASTOLAREN  
EGUNA

Goizean umeentzat jola-  
sak. Ondoren opari banaketa.  
2ak aldera gurasoendako lun-  
txa.

■ ORKATZ TALDEAREN  
ZILARREZKO EZTIAK

Eguerdiko 12etan diapo-  
sitiba emanaldia San Viator  
ikastolan. Ordubatean jola-  
sak Herriko plazan. 2etan  
kalejira. 2.30etan herri baz-  
karia Herriko plazan. 5etan  
*Txinparta* taldearekin dan-  
tzaldia.

■ KONTZERTUA  
SAN FRANTZISKO ELIZAN

Legazpi abesbatzak eta  
Goikobalu abesbatzak kon-  
tzertua eskainiko dute San  
Frantzisko elizan arratsalde-  
ko 8etan.

■ ANTZERKIA AMAIA  
ANTZOKIAN

Sobradun taldearen *30  
millones de gilipollas* an-  
tzezlana Amaia antzokian  
gaueko 10.30etan. Sarrera:  
800 pta. eta gazte txartelare-  
kin 600 pta.

27

igandea

■ ZINEA

*Mars Attacks* Alai zine-  
man 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN  
IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Mal-  
tzaga, Eibar, Arrasate, Mar-  
kina, Trabakua, Berriz, Elo-  
rrio eta Arrasate, 78 kilome-  
tro. Irteera goizeko 9.30etan  
Monterroindik.

■ DANTZARI EGUNA  
ARETXABALETAN

Loramendi dantza talde-  
ak antolatuta Dantzari eguna.  
Goizeko 10etatik 7ak arte eus-  
kal dantzak ikusteko aukera  
Aretxabaletan.

29

asteartea

■ ZINEA

*Mars Attacks* Alai zine-  
man 7etan eta 9.30etan.

■ BIDEO EMANALDIA MON-  
TERRONEN

*El cartero* bideo emanal-  
dia Monterronen arratsalde-  
ko 7etan. Sarrera dohainik.

30

asteazkena

■ PIANO KONTZERTUA

Piano kontzertua Arrasa-  
te Musikaleko aretoan arra-  
tsaldeko 7.30etan.

28

astelehena

■ ZINEA

*Mars Attacks* Alai zine-  
man 7etan eta 9.30etan.

■ TXISTU KONTZERTUA

Txistu kontzertua Arrasate  
Musikaleko aretoan arratsal-  
deko 7.45etan.

# 1 osteguna

## ■ ZINEA

*El imperio contraataca*  
Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

## ■ LANGILEAREN EGUNA

-LAB sindikatuak antolatuta manifestazioa eguerdiko 12etan Seberon.

-ELA Sindikatuak Bilbo-ko manifestaziora joateko autobusa antolatu du. Irteera goizeko 9.15etan Garibaiko geltoki zaharretik.

-CC.OO sindikatuak Donostiara joateko autobusa, goizeko 10etan Garibain.

## ■ MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Maiatzaren 1tik 4ra Gabarditora mendi irteera Besaiderekin. Izenematea Besaideren egoitzan apirilaren 28an eta 29an arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte.

## ■ SEXUALITATE TAILERRA

Maiatzaren 13tik 29a arte, astearteetan eta ostegunetan arratsaldeko 6etatik 8ak arte. 25-45 urte arteko emakumeei zuzenduta. Izenematea Emakume Sailean (79 41 39) eta Gazte Bulegoan (77 00 65).

## ■ GITARRA IKASTAROA AL ANDALUSEN

Al Andalus elkarteak gitarra flamenkoa ikasteko ikastaroa antolatu du maiatzerako eta ekainerako. Irakaslea Andaluziatik etorriko da. Interesatuok Al Andalusera zuzendu edo 77 03 28 zenbakira deitu arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte.

## ■ SAN JUANETAKO TANBORRADA

Astlehenean San Juan jaietako tanborradaren entsaiuak hasiko dira SUDCen lokalean (Pablo Urangan) arratsaldeko 6etatik 7.30ak arte. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

## ■ UDAKO KIROL ESKOLA

Deba Bailarako Udal Euskara eta Kirol Zerbitzuek Uda kirol eskola antolatu du kirol munduan euskararen presentzia areagotzeko. Ikastaroa uztailaren 14tik 18ra emango da. Atletismo eta futbol ikastaroak Eibarren emango dira, pilotakoak Aramaion eta Arrasaten, Bergaran eskubalo i ikastaroa eta Mutrikun irakasleen erreziklajea. Informazio gehiago jasotzeko deitu Musakolako kiroldegira 79 04 27 zenbakira.



## ■ KIROL MATERIALAK EUSKARAZ SORTZEKO BEKAK

Igeriketa eta arte martzialei buruzko fitxa didaktikoak egiteko bekak jarri dituzte abian Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek. Kirol bakoitzeko gutxienez 20 eta gehienez 30 fitxa egin beharko dira. Igeriketako beka 200.000 pta. da, eta judo eta karatekoak 150.000 pta. Lana egiteko epea beka ematen denetik hasita lau hilabetekoa izango da. Interesatuak Bergarako Udaleko kirol Zerbitzura (San Martin Plaza, 20.570 - Bergara) bidali beharko dituzte eskabideak. Eskaerak aurkezteko azken eguna ekainaren 2a.

**Epea: Ekainaren 2an**  
**Informazioa: Bergarako Udala**

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 25**  
• Gaeuz: Irizar. Erguin.
- Larunbata 26**  
• Gaeuz: Amezua. Santamaina.
- Igandea 27**  
• Gaeuz: Ruiz. Maala.
- Astehena 28**  
• Gaeuz: Morales. San Andres.
- Asteartea 29**  
• Gaeuz: Azkoaga. Ferrerías.
- Asteazkena 30**  
• Gaeuz: Español. Iturriotz.
- Osteguna 1**  
• Gaeuko 10ak arte: Corcuera. Musakola  
• Gaeuz: Camacho. Bergara.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00  
Iguatorialdea . . . . . 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara . . . . . 76 55 76
- DYA**  
Antzuola . . . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdia) . . . . . 79 13 57  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . 77 03 46  
• Espezialitateak . . . . . 77 05 78  
. . . . . 77 12 64  
Oñati . . . . . 78 08 52  
Eskoriatza . . . . . 79 98 58  
Aretxabaleta . . . . . 79 74 58  
Aramiao . . . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulantiak . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Oñati . . . . . 78 04 11  
Bergara . . . . . 76 14 69  
Arrasate . . . . . 79 14 39  
Aretxabaleta . . . . . 79 10 52  
Eskoriatza . . . . . 088
- Ertzaintza**  
Arrasate . . . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea . . . . . 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) . . . . . 79 09 00  
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 79 78 44  
. . . . . 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak . . . . . 79 12 22  
PESA. . . . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**  
Iturbide Egoitza . . . . . 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**  
KIUB-OMIC . . . . . 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**  
Monterron. . . . . 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia . . . . . 79 58 77

**Gutunen araudia**

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorarik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzten saiatuko gara.
- Anonimo, gaitzinez edo inimizalez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kaleartuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

**Astebukaerretako kazetari berria**

ARKOn lanean hasi berria da Unai Loidi atxalbaltarra. Unai astebukaeretan lan egingo du, larunbatean eta igandetan, eta batez ere kazetari lanak egingo ditu. Horrez gain, argazkiak ateratzen ere ikusiko duzue.

Unai kazetaritza ikasten ari da Leioan, baina hori baino lehenago ostalaritza ikasi zuen unibertsitate berean.



**Agur Xabin!**

Xabin Arrieta hil zen asteazkenean, 82 urte zituela. Azken hilabeteetan ondo ezik zebilen eta Ospitalean ingresatuta zegoela harrapatu zuen heriotzak.

ARRASATE PRESSEN hasiera hasieratik aldamean izan dugu Xabin Arrieta, ahal izan duen bakoitzean laguntza eta informazioa emateko gertu. Auskalo argitaratu ditugun argazki zahar guztietatik zenbat izan diren berak ekarritakoak!

Egindako guztiagatik eskerrik asko Xabin, eta doluminik sentikorrenak etxekoei eta lagunei.



**Memesa**  
**79 42 22**

**UGARAN**  
**jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
**ARRASATE**

**beatriz**

*oinetakoak  
eta poltsak*

Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
**ARRASATE**

# Normalean irakurtzen duzu?




**Miren Mondragon**  
Dendaria  
(34 urte)

Batez ere nobelak, eta misteriozkoak eta potoloak badira hobeto. *Los pilares de la tierra* eta *El médico* irakurri ditut eta asko gustatu zaizkit.



**Nahia Azpilikueta**  
Ikaslea  
(20 urte)

Oso gutxi irakurtzen dut. Azkena orain bi hilabete irakurri nuen baina eskolan agindu zidatelako, *Kuba triste dago* zuen izena.



**Jon Etxabe**  
Ikaslea  
(16 urte)

Nobelak orokorrean. Irakurtzea asko gustatzen zait. Ikastolan agintzen dizkigutenez gain, nire aldetik ere irakurtzen dut. Onenatariko bat *Kuwaiten harrapatuak*. Beti euskarazkoak irakurtzen ditut.



**Sagrario Narbaiza**  
Langilea  
(48 urte)

Gutxi irakurtzen dut, normalean egunkaria, ARRASATE PRESS eta horrelakoak bakarrik. Lehen bai, baina orain ez dut denborarik eta ez naiz liburuekin hasten. Erdaraz irakurtzen dut beti.




**Jose Ezkurra**  
Jubilatua  
(62 urte)

Egunkaria baino ez dut irakurtzen eta horrekin nahikoa dut. Nobelak? Nahikoa nobela ikusten dut telebistan!



**Elena Kortabarria**  
Langilea  
(28 urte)

Liburuak, beti daukat bat edo beste mesanotxean. Irakurri dudana azkena *El clan del oso cavernario*. Askok gustatu zait. Normalean erdaraz irakurtzen dut.



**Andoni Arregi**  
Langilea  
(44 urte)

Prensa bakarrik. Nobelak astunegiak egiten zaizkit. Hasi hasten naiz, baina ezin jarraitu.



**Javi Alonso**  
Langabetua  
(18 urte)

Denetarik, asko gustatzen zait batez ere beldurrezko liburuak. *Jurassic Park* liburuaren bigarren atala irakurri berri dut eta oso ona da.

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99

**BITTORI ERRETEGIA**  
Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

**BAL-BAL**  
Umeak  
Moda  
Lurrindegia  
Opariak  
Bañez Doktorea, 15  
(San Andres) • ARRASATE  
Tel.: 79 06 37

USTEAK USTE

*Baserritarrak zerura begira*

**G**anoraz ganoraz, otsailaren 24ean bota zuen euria azkenengoz. Orduetik apenas bota duen. Tanta batzuk pasa den asteburuan, eta beste apur bat martxoaren 24-25 tartean.

Kaletarrok gustora gabiltza, uda itxurako halako udaberririk ezagutu ez dugulako. Askok abuztuaren bukaera alderako koloreko aurpegia du dagoeneko, beltzaran eta alai. Eguzkia ikusi orduko gorantz begira jartzeko ohituraren seinale. Baserritarren aurpegietan, berriz, alaitasun gutxi eta kezka ugari.

“Belarra jasotzeko sasoian ingo jok, arbola danak loratzen diezenian” esan zidan Udalako baserritar batek aurreko astean. Itxuraz ikaragarri modernizatu da baserria: tresna mekanikoak, negutegiak, ureztatzeko sistematik, ustiapen intentsiboak... baina oinarrian gutxi aldatu dira gauzak, baserria gizakiaren eta naturaren arteko lanaren fruitua delako. Jakina, batek kale egiten duenean alper alperrik modernizazio guztiak, ureztatzearena esaterako.

Beñardo Kortabarria



## Errenta aitortpena egiterakoan...

Iñaki Arejolaleiba

**A**pirilaren lehen zabaldu zen 1996ko errentaren aitortpena egiteko epea, eta ekainaren 25a arte Foru-ogasunarekin kunplitzeko aukera zabalik egongo da.

Nortzuk dute, baina, urteroko zita honen aurrean erantzun beharra? Hasteko, esan behar urte osoan 1.000.000 pezetatik behera irabazten dutenek ez dutela obligaziorik, ezta euren diruak 250.000 pezetatik beherako interesa eman dietenek ere. Era berean, pentsionista izanez gero, eta bikotearen artean 1.200.000 pezeta baino gutxiago jaso badute, aitortpena egiteko libre. Kontua da, askotan obligaziorik ez izan arren, ordaindutakoa kobra-

tzeko aukera egoten dela. Azken kasu hauetan, aitortpena egiteko gomendioa egin-go nioke edonori. Zentzu berean, aipatzekoa da Foru Ogasunak arau zorrotz bat baduela: Berari ezer ordaindu ez bazaio, berak ez du ordaintzen.

Behin jakinda bisita nortzuk egin behar duten, bisi-

tara zer eraman adierazi behar, gauzarik arruntenak behintzat. T-10 famatua, banketxeko interesei buruzko papertxoak, eta kontribuzioaren agiria ezinbestekoak izaten dira. Horiekin batera, gastu medikorik badago, eraman ziurtagiriak. Era berean, etxebizitzaren bat erosi baduzu eta ordaintzen bazabiltza, eraman banketxeko justifikanteak eta amortizazioaren papertxoak, desgrabatu egiten dute eta.

Aitortpen sinplifikatua, ordinario arrunta, eta disketek bidez egin daitekeen ordinariora (ia inork erabiltzen ez duena) egiteko aukera izango duzu, iaz bezala. Ez hori bakarrik, aurten aitortpen telematikoa egiteko aukera ere badagoelako. Aitortpen telematikoa profesionalok egin ahal izango dugu bakarrik, aholkularitza, gestoria edo banketxeetan dihardugunok. Modem bidez Foru-ogasuneko ordenagailuarekin konektatzeko aukera izango dugu, eta sistema hau erabiltzen duenak ekainaren 25a arte bere lehen aitortpena aldatzeko aukera izan dezake, intermediario barik.

Azkenik, aipatu behar dizuet zuen galdera zuzenei erantzuteko prest gaudela. Horretarako idatzi ARRASATE PRESSERA eta egin galdera zuzenean, aldizkarian bertan erantzungo dizuegu.

Iñaki Arejolaleiba *Urrats* aholkularitzakoa da

“  
Zure kezkei  
erantzuteko idatzi  
Arrasate Pressera eta  
egin galdera  
”

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07

**HIES  
EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

**SIRIMIRI**  
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42  
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE



astea bi hitzetan

■ **Arriortua Arrasatera etorri**

Iaz Eskola Politeknikoan injinerutza ikasketak bukatu zituzten 210 ikasleri diploma eman zieten joan den ostiralean. Ekintza horretan Lopez de Arriortua enpresari ezagunak parte hartu zuenez, ikusle asko hurbildu zen Eskolara. Ikasleen guraso, enpresari eta politikari batzuek gain, Retegi sailburua ere gerturatu zen Arriortuaren hitzak entzutera.

“SuperLopezek” zori- eman zizkien graduatuei, eta enpresari berriek izan behar dituzten ezaugarriak buruz berba egin zuen. Zornotzarraren ustez, gestio sistema tradizionalak balio ez duenez, berriak bilatu behar dira. Horretarako sormena erabili behar dela esan zuen.

■ **Obrak hasi Maala Arrabalean**

Astelehenean obrak hasi ziren Maala Arrabalean. Konponketei hasiera emateko, astelehenean kalea prestatzen hasi ziren eta jarraian asfalto kenduko da, gero granitozko zorua jartzeko. Obrek sei hilabete inguru iraungo dute, eta lanak errotanda dagoen tokitik hasiko dira.

■ **Hezkuntza sexuala mintzagai**

Sexualitate bulegoak antolatuta, hezkuntza sexuala aurrera nola eraman azaldu zen astelehenean. Hitzaldia eman zuten bi adituek esan zuten, gai horri dagokionez eskolan eta etxean asko dago egiteko, baina etxeetako hezkuntza sexuala ikastetxeetako baino pobreako dela esan zuten. Euren ustez,

gurasoak ez daude heziketa mota hori emateko prestatuta. Bi adituak kritiko azaldu ziren gaur egun hezkuntza sexualak duen sistematikin.

■ **Sutea Madina-Zurak egur biltegian**

Kanpazar bidean dagoen Madina-Zurak egur biltegian sutea piztu zen asteazkenean. Sutea eguerdian piztu zen, eta une horretan ez zegoen inor lantegian. Suhiltzaileak segituan azaldu zirenez, suteak ez zuen kalte larrikeria eragin eta gehienbat tailerra geratu zen hondatuta kearen ondorioz. Egur zatiak erretzeko erabiltzen duten galdaratik piztu zela sua uste dute langileek.

Madina-Zurak egur biltegian zazpi lagunek egiten dute lan.



- Zein dira zure lanaren alde onak?

- Gauza ezberdin askotan aritzeko aukera ematen ditu: zuzenbidearekin zerikusia duten gauzak, ekonomia arlokoak, obrak, jende ezberdinarekin harremana: kirol taldeekin, udaletxeko lankideekin, kirolegia erabiltzen dutenekin, beste udaletako kirol arduradunekin...

- Eta txarrak?

- Sarritan kirol arloan, instalakuntzak, ordutegia etab., gaizki dauden gauzez konturatu arren ez dago gure esku horiek konpontzea, goiko karguen agindu eta aurrekontuak direla eta. Halere, gu gara jende aurrean erantzuleak. Bestalde, ez nuen inoiz pentsatu, nire lana zela medio, telebistan aterako nintzenik, baina Arrasaten telebista dagoenez, irten izan naiz eta horrek oso urduri jartzen nau”.

**RAMON FERNANDEZ DE JAUREGI**

Barren aldizkaria  
1997-4-11



**EURIAK BIZIRIK EGUNA ILUNDU**

Euriaren eraginez, Ebertan behera geratu ziren Bizirik Egunerako antolatuta zeuden kontzertua eta antzerkia. Arratsalderako deituta zeuden ekintzak, berriz, egin ziren eta umeendako antzerkiak arrakasta handia izan zuen. Ostean egin zen kalejiran ere hainbat lagunek parte hartu zuen.

**ITSASKI**  
ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta**  
Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

**Hilbera**  
kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 79 22 70

Lurralde antolamendurako zatiko planak

# Deba Garaia antolatzea helburu

Lurralde Antolamendurako Artezpideak onartu ostean (DOT direlakok), orain Jardutze Eremuetako Lurralde Antolamendurako Zatikiko Planak (gazteleraz PTP) zehazteko prozesua hasi da.

Natxo Izetaren, Lurralde Antolamendurako zuzendariaren hitzetan, behin artezpideak (DOT) onartuta hurbilagoko planei heldu behar zaie. Lurralde Antolamendurako Artezpideek Euskal Elkarte Autonomoa dute abiapuntutzat, eta 15 zonaldeetan banatzen dute Elkarte Autonomoa. Orain egingo diren zatiko planetan, berriz, zonalde bakoitzeko lurralde antolamendurako jasoko da. Gipuzkoan 6 zatiko plan egingo dira; horietako bat

Deba Garaikoa.

Zatiko planetan zehaztuko diren arlo nagusienak honako hauek izango dira: etxebizitzaren kuantifikazioa (zenbat eraikiko diren eremu osoan), zein ekipamendu beharko dituen zonaldeak eta non kokatuko diren (kirol, kultura, hezkuntza... ekipamenduak), zenbat lur utziko den iharduera ekonomikorako (industriak eta komertzioak jartzeko) eta zeintzuk diren babestu nahi diren eremuak (balio ekologikoa edo kulturala dutelako adibidez).

## METODOLOGIA

Zatiko planak egiteko zenbait teknikoz osatutako taldea izendatu da, baina horrez

gain batzorde bat eratu dute Jaurlaritzak, Diputazioak eta EUDELeK. Batzordearen helburua, eremu bakoitzari antolamendurako egokiena emateko adostasun batera heltzea izango da; zatiko planak onartzea, berriz, Jaurlaritzari dagokio.

Administrazioari ezezik gizaritari ere zatiko planen prozesuan parte hartzeko aukera eman nahi zaiola eta, ETOR taldeak eratu dira. Talde horietan herriko elkarte desberdinek parte hartuko dute, eta euren lana proposamenak egin eta iritziak ematea izango da. Beraz, talde hauek ez dute erabaki binkulanterik hartuko. Natxo Izetaren berbetan, erakundeetatik kanpo dauden tal-

deen iritziak jasotzea ere garrantzitsua dela uste dutelako eratu dituzte aipatutako taldeak.

ETOR taldeak maiatzean hasiko dira biltzen, eta Udalak bidali du talde horietan parte har dezaketen herriko elkarten zerrenda. Hona-ko hauen izenak eman dira: EKI, Lurrats, MCC, Askonggi, Kapirixo, Eguzki, Adegi, sindikatuak, Mendi Nekazaritza Elkarte, Ibai Arte, Udalako Ingurugiro Eskola, AHTren aurkako taldea, Besaide eta arkitektoen elkargoa. Zonalde bakoitzean ETOR talde bat antolatuko da, baina elkarte bakoitzak berarekin zerikusia duten gaietan parte hartuko du bakarrik.

## Zatiko planei Udalak egindako iradokizunak

Gipuzkoako Diputazioa hasi da zatiko planak zehazten, eta Foru Aldundiak finkatutako zenbait irizpideren aurka azaldu da Arrasateko Udala. Hori dela eta, hainbat iradokizun bidali ditu Aldundira.

Udaletxeko Hirigintza Sailaren ustez, Diputazioak garrantzi handiegia ematen dio Donostialdeari eta ez da kontuan hartzen Deba Bailarak Gasteizekin edo Duran- galdearekin duen harreman

estua. Bi ospitale psikiatriko, talde kooperatiboa eta finantz elkarte garrantzitsu bat egonik, eta laster unibertsitatea egongo denez, bailara ekipamendu gehiagoz hornitzearen alde azaldu da Udala.

Arrasateri dagokionez, Zerrajeran etxebizitzak egiteko asmoa jasotzea, eta Santamaina berregokitzeko plana kontuan hartzea eskatzen da besteak beste.



Udalaren ustez zatiko planetan garrantzi handiegia ematen zaio Donostialdeari

# Epaitegiaren aurka egindako erasoak kondentatzeko pleno berezia gaur

Gaur arratsaldean pleno berezia egingo da EAJk, PSE-EEk, EAK, EBk eta PPK aurkeztutako mozioa aztertu eta onartzeko.

Bake epaitegiaren aurka apirilean izandako bi erasoak salatzea helburu duen mozioan esaten da, horrelako ekintzek Euskal Herriko bake prozesuaren alde ez dutela laguntzen. Bestalde, alkateari eskatzen zaio publikoki ekintza horiek kondentatzea, eta onartezina deritzote Gobernu Batzordeak, beraz HBk, erasoak justifikatzea. Hala ere, horrelako ekintzen aurrean gogoeta egitea eskatzen diote HBri. Bukatzeko, helburu politikoak lortzeko biolentzia ezin dela erabili, eta mozio aurkezten dutenek Arrasaten ganorazko bake epaitegia edukitzearen alde lan egingo dutela dio mozioak.

Gaur aztertuko den mozioa urtarrilaren 11ko erasoak salatzeko aurkeztu zenaren ia berdina denez, HBk orain ere



Apirileko erasoek hondatuta utzi dute bake epaitegia.

aurka bozkatu eta orduan esandakoak gogoratuko ditu seguruen. Pleno hartan HBko kideek esan zuten, txikizioak errepresioaren ondorio dira. Azkenaldiko gobernu

bileran batean ere txikizioak izan zituzten mintzagai HBkoek, eta egoera honetatik ateratzeko elkarrizketa eta negoziaketaren bideari heltzea beharrezkotzat jo zuten.

## Epaitegirako dirulaguntza

Aseguruen Kontsorzioak dirulaguntza eman du bake epaitegirako. Urtarrilaren 11n egindako erasoak ekarri zituen kalteak ordaintzeko eman du laguntza Kontsorzioak. Urtarrilaren 11n 1.600.000 pezeta-ko kalteak eragin ziren bake epaitegian, eta Kontsorzioak 1.440.000 pezeta eman ditu.

Bake epaitegiaren lokala Udalarena denez eta aseguratuta dagoenez, apirilko erasoek utzi dituzten kalteak ordaintzeko dirua ere emango du Kontsorzioak.

Segurtasun modura pertsiana blindatuak jarri berri dira bake epaitegian.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

# Arrasateko Enpresa eta Berrikuntza Zentroak irailean zabaldu nahi ditu ateak

Egunotan obrak egiten hasi dira Zerrajeraren erdiko edifizioan, eta behin eraberritzea eginda, bertan kokatuko da Arrasateko Enpresa eta Berrikuntza Zentroa. Uztailerako obrak amaitu, eta irailean zentroa zabaltzeko moduan ego-tea espero da.

Momentuz erdiko eraiki-naren lehen solairua eraberritu-tuko da, eta obrak 27 milioi-ko aurrekontua du. Aurrerago, berriz, beste solairu batzuk konpontzeko aukera jasotzen da, beti ere beharren arabera.

Zentroaren helburua

enpresa bat eratu nahi dutenei txoko bat ematea da, eta hasiera batean zortzi ekimene- izango dute tokia. Gaur egun Saiolanen garatzen dira ekimen horiek, baina Saiola-n ez dute tokirik. Enpresa bakoitzak bere txokoa izango du zentroan, baina horrez gain bilera eta harrera gelak eraiki-ko dira.

Arrasateko EBZaren baz- kide dira: SPRI erakundea, Gipuzkoako Diputazioa, Arra- sateko Udala, MCC, Ulma, Cegasa, Ikerlan, JMA eta Eskola Politeknikoa.



Saiolanen jaiotako hainbat enpresak toki bat izango du EBZan.

## Iaz bezala, umeendako eskola publikoa eskatu du erdigunean bizi den guraso talde batek

Iaz egin zuten moduan, aur- ten ere hainbat gurasok erdi- gunean eskola publikoa anto- latzea eskatu du. Proposame- na bi eta hiru urteko umeak dituzten bederatzi gurasok egin dute, eta guztira lau ikasgela

jartzea eskatzen dute.

Udaletxera eta Jaurlaritzara eskaera luzatu, eta astean Hez- kuntza Batzordean alderdi poli- tikoek proposamenari zer erantzun dioten jakin da. EAren, HBren eta EAJren

ustez, horrelako ekimenak Eus- ko Jaurlaritzari dagozkio, eta beraz, Jaurlaritzak eman behar du iritzia. EBko ordezkariak, berriz, begi onez ikusi zuen proposamena batzordean eta PSE-EEko kiderik ez zen izan.

## Jardingintza ikastaroa

Udalak jardingintza ikastaroa antolatuko du 15 langabetu- rendako.

Ikastaroak 400 orduko iraupena izango du, eta *Par- ques y Jardines*-ek emango ditu eskolak.



### Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# ARGI PLASTIC


Tailerra eta bulegoa: Zigorrola, 1-8 pabiloia  
Tel.: 77 11 30 • ARRASATE



- PVC eta aluminioan egindako leihoak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean.
- Zerbitzu profesionalena.



Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik!



## PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

SESIOA: 3.300 pta.

11 sesioko tratamenduagatik sesio bat eta manikura doan!

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.




Sekula parean tokatu ez zaionak, nekez sinestuko du askotan antolatzen diren zozketetan: egunero diamante bat, bizitza osorako soldata, bidaia munduari bira eginez.... Timotea Beitiak hemendik aurrera badu horrelakoetan sinesteko arrazoirik, BBVk zozketatzen duen Volvo S-40 autoetariko bat berari irten zaio eta. Giltzak baditu, orain gidatzeko karneta atera behar!

## MAIATZEKO ZUBIAN ESTREINATZEKO... AUTO BERRIA



## BLAK GOZO GOZO

Larraitz eta Txusti Mexikon harrapatu genituen ezkongai bidaia egiten. Hauek ezkondu baino lehen pentsatu dute bidaia egitea. Izan ere jakin badakite ezkondu eta gero gauzak ez direla berdinak izaten!



## IKASBIDAIA SALOURA

Institutuko 3. BUPeko ikasleek Saloun igaro dute astebete ikasbidaian. Taldeek klasetik kanpo primeran pasa dute eguzkia hartu eta juerga ederrak egiten. Gainera esan digutenez asko ligatu ei dute!



**CE**

**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa ■ Estimulazio goiztiarra  
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea  
eta hizkuntz bereziera)


Logopedia ■ Laguntza terapia  
Mota guztietako eskola arazoak

Judizial peritajeak

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

## XVI. MENDEKO ALTXORRA


San Viatorren jarri duten liburu zaharren erakusketan, honako liburu handi eta zaharra aurkitu dugu: Alfonsito X.a Jakintsuak idatzitako 4. partida. 1550. urtekoa da eta zahartuta dagoen arren, ondo irakurri daitezke bertan idatzita dauden legeak. Hau bai altxorra!



### MECA GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29  
Renault Asisten.: 900 365 000

24 orduko zerbitzua 365 egunetan



## IZENAK

### Diego Martiartu

Arrasate Irratian hasi da lanean. 28 urteko arrasatearrak kazetari lanak egingo ditu irratian.

Aurrez Santa-mainako liburute-gian eta AEKn egin du lan. Euskal Filologian lizentziatua da. Nerea Zubietaren ordezkari sartu da Martiartu.



### Ibai Arte

Arrasate Erdialdeko merkatal eta zerbitzuen elkarteak Zuzendaritza Batzordea berri du. Lehendakaria Rosario Ceciaga izango da, lehendakariordea Jose Mari Morales, diruzaina Arrate Lasagabaster eta idazkaria Javier Inda.

Bokalak, berriz, honako hauek dira: Segundo Uriarte, Amaia Zubia, David Zalama, Edurne Aranburu, Espe Etxaniz, Ezekiel Gomez, Eugenio Uribarren eta Jose Guridi.



**DESFILE IKUSGARRIA!**

Janzkera eta orrazkera bereziak izan ziren ikusgai joan den ostiralean Arrasaten egin zen desfilean. Argazkiko modelook behintzat janzteko ez zuen denbora askorik behar izan.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko erropa

Isturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**Lore**

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50

Haurdun bazaude  
**LAURA** da zure  
jantzidenda.


Udaberriko moda  
gaztea jazteko neurria  
ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

# Laura



Erdiko Kale, 30  
Tel.: 79 05 80  
ARRASATE



- A) Lycra-kotoizko ehuna.
- B) Erraz zabaltzekoa.
- D) Uztai birtualak.
- E) Puntila elastikoa.
- F) Graduatu daitezkeen tirante elastikoak.
- G) Hiru posiziozko itxidura.
- H) Goma gozoa eta adaptagarria.
- I) Errefortzuzko ehun bikoitza.



**ZUGAN ZERBAIT ALDATU DA.**

# TITARE

- **Lentzeria**
- **Kortsetegia**
- **Bainujantziak**

Olarte kalea, 6 • Tel.: 77 10 16 • ARRASATE





Semeak amarekin duen lehen harremana. Horrelako irudiak ohikoak dira lehen hilabetetan.

# Erditzea

# Bizitza berri bat mudura

**A**razo barik datozen erditzeak erditze salan egiten dira. Erizain batek, erditze laguntzaile eta emagin batek laguntzen diote jaiotzen umeari. Gerta daiteke erditzeak arazoak izatea eta ginekologoaren presentzia eskatzea. Aurretik zesarea egin behar dela jakinez gero, kirofanoan egiten dira erditzeak. Kasu hauetan kirofanoko pertsonalaz gain, ginekologoa, pediatra eta emagina egoten dira.

Arrasateko ospitala gaur egun pertsonalari eta mate-

**Bizitzako une politena ei da seme-alaba baten jaiotza. Bederatzi hilabete zain egon eta gero, gurasoak irrikan egoten dira euren maitasunaren fruitua ikusteko. Poztasun horrek urduritasuna, ezjakintasuna eta zalantza ekartzen ditu, batez ere lehen seme-alaba denean. Sentsazio horiek sakonki erditze salan hasten dira nabaritzen. Umeak jaiotzen den unea eta gurasoen erreakzioa nolakoak diren jakiteko Ospitaleko emaginengana jo dugu. Aditu hauek esan digutenez erditze bakoitza mundu bat da eta erreakzioak ere desberdinak izaten dira, horregatik zentzu orokorrean aztertu behar dira erditze baten nondik norakoak.**

rialari dagokionez ondo presatuta dago egon daitezkeen arazo guztiei aurre egiteko. Entzun izan da epidurala emateko ohiturarik ez dagoela

Arrasaten baina aditu hauek aipatu dutenez, eskatuz gero, emakume guztiek dute hartzeko aukera. Epidurala erditzea hasten denean ematen da

erdimina neurri batean ekiditzeko eta gero eta gehiago eskatzen da.

## ERDITZE GUZTIAK DESBERDINAK

Erditze baten iraupenari buruz luze eta zabal hitz egin daiteke. Ana emaginaren berbetan erditze batek 3 orduetik 24ra iraun dezake. Ez dago arau zehatzik, hori guztia emakumearen arabera dago. Batzuk poltsa segituan apurtu, kontrakzioak azkar izan eta berehala ematen diote bizitza semeari; beste batzuk poltsa

apurtuta ekarri arren, orduak eta orduak egon daitezke seme-alaba eskuartean hartu barik. Emakumeak ospitalean ingresatzen duenean obserbazioan egoten da eta ez erditzean. Hori dela eta, askok nahastu egiten ditu kontzeptuak eta partoan 10 ordu egon direla esan dezakete, benetan bost izan direnean.

Erditze guztiak jakina, ez dira berdinak ezta umeak amaren sabelean izaten duen posizioa ere. Ohikoena umea buruz behera egotea da, baina ipurdiz ere etor daiteke. Azken hauetan zesarea egitea normala izaten da. Interbentzio kirurgiko hori kasu askotan egin daiteke: amak arazo fisikoak dituelako, azken orduko konplikazioegatik, umeen posizioa dela eta...

Seme-alaba itxuraz normal badator, buruz behera, gerta daiteke ateratzeko orduan zailtasuna egotea eta tresna bereziak behar izatea. Horretarako bentosak, espatulak eta forzepsak daude. Ginekologok zailtasun gradua ikustean erabakitzen du zein erabili. Bestalde erditzeak ere probokatu daitezke goteoaz edo maginatik sartzen den gel baten bidez. Probokatzeari sendagilearen erabakia da baina horretarako arrazoitazuk egon behar dira. Seme-alabenerditzea normala izan bada, lau egun igaro behar dute ospitalean. Zesarearekin zazpi bat egun. Egia esateko guraso berriak etxera joateko desiatzen egoten dira baina aldi berean beldurtuta.

Arrasateko ospitalean batzatek beste ume t'erdia jaiotzen da egunero. Birkie dago kienez urtean bost bikote gutxi gorabehera. Baina datu hauek jakina ez dira zehatzak, urtetik urtera aldatetako egon daitezke eta. Jaioberrien sexuari dagokionez mutil gehiago jaiotzen dela uste dute emaginek. Hilabetez hilabete jaiotzen den kopu-

*Erditzea normala izan bada lau egun egon behar dute ospitalean. Zesarearekin zazpi bat.*

ruari begira ez dago azterketarik eginda. Hala ere 32 urte emagin lanetan daraman emakume honentzat ilargi beteak badu eraginik erditze kopuruan nahiz eta ospitalean egindako azterketak kontrakoa esan. "Nire ustez ilargi bete dagoenean ume gehiago jaiotzen da. Era berean esaten da gauez goizez baino gehiago jaiotzen direla baina ez da egia. Normalean ingresoak gauez egiten dira, goizean erditzeko".

## UNE HUNKIGARRIA

Ama batentzat ume bati bizia ematea gauza handiena den moduan, laguntzen dabilten profesionalak iritzi bera dute. "Urte asko daramat emagin lana betetzen eta umeari bizi independentea emateko zilbor hestea moztzen dudaneko sententzia azaldu ezina da, hunkigarria erabat. Horrez gain, gurasoak negarrez ikustea ere bihotzera heltzen zait".

Gaur egun lehen ez bezala, erditzean emakumeekin



Erizainek, emaginek eta erditze laguntzaileek umearen ardura izaten dute hasierako egunetan.



Semea edo alaba mundura datorrenean eurentzat bereziki prestatuta dauden gela batzutan egoten da.

batera senarrak egoten dira. Senarraren laguntza garrantzitsua da emakumearentzat, laguntza fisikoa ez, baina psikologikoa ematen dio. Emakumea gainera babestuago sentitzen da.

Umea jaiotzean amaren eta aitaren lehen galdera ea ondo dagoen izaten da. Erditzea normala bada, umea jaiotzean aita berarekin joaten da erreanimazio gelara. Une horretan aitak duen harridura, poztasun eta harrotasun aurpegiak dena esaten duela dio Anak.

#### ANEKDOTAK

Ana emaginak Ospitalean darमतзан 32 urteetan une gozo eta garratzak bizi izan ditu. Orain berak dioen bezala, emakume haundun asko etortzen zaio berarekin jaio zirela esateko. Beste generazio baten aurrean aurkitzen da Ana eta

*Emagin eta eritzaintzat benetan gogorra senitarteko edo lankide baten erditzean egotea da. Erresposabilitate berdinduten arren, beste modu batean bizitzen ei da eta.*

horrek poza ematen dio.

Anekdotak batzuk ere kontatu dizkigu. "Duela urte batzuk erditzea ikusten luze jausi zen senarra eta ezin erreanimatu ibili ginen. Hurrengo egunean andrearengana joaterakoan semearengatik edo beragatik galdetu beharrean, senarraren egoera zen gure ardura handiena. Beste behin baina aspaldi, ekografiak egiten ez zirenean hiruki batzuren erditzean egotea egokitu zitzaidan. Beste anekdotak bat; mutila izango zela pentsatu eta neska jaio zitzaizen bikote bat dut buruan. Gurasoek ondo erreakzionatu zuten nahiz eta mutilentzat dela prestatuta izan. Dena den, beste batzuk disgusto galanta hartzen dute".

Erditzetan zegoen beste irudi bat gizona bisitagelan zigarro bat bestearen atzetik erretzen egotea zen. Amagi-

nen ustez irudi hori ez da gaur egun bizi izaten: "senarrak normalean emaztearekin izaten dira. Eta horrela ez bada egongelan egoten dira, urduri baina ez keez inguratuta".

Berba egin dugun emagin eta eritzaintzat benetan gogorra senitarteko edo lankide baten erditzean egotea da. "Familiakoak sufritzen ikustea jasangaitza egiten zaigu. Gainera erresposabilitate berdina izan arren, beste modu batean bizi izaten dira erditze horiek". Profesional hauei ere egokitu zaie semea kanpoan duen andre bati lagundu behar izatea, kotxean edo etxean izan duelako.

Beraz era guztietako egoerak bizi izan dituzte emagin hauek baina eurak dioten bezala horretarako prestatu dira eta harro daude euren lanarekin. ■

-----  
Itxaro Zubillaga

Atxabalpeko instalazioen arduraduna

## SANTIAGO MARTIN

*“Belarrezko zelaiak arreta handia eskatzen du”*

— Ze lan betetzen duzu Atxabalpen?

— Instalazioak egoera onean egotea da nire ardura. Futbol zelai biek txukun egotea bertan entrenatu eta jokatu ahal izateko.

— Lan asko eskatzen du zelaiak zaintzeak?

— Areezko zelaiak ez, nibelatu egin behar da eta udan erregatu; belarrezkoak berriz bai. Zuloak estali, erregatu, belarra moztu. Gainera zaintzeko orduan kontuan hartu behar da ura eta eguraldia.

— Lan gogorra da?

— Neguan bai, euriarekin eta hotzarekin.

— Anekdotarik?

— Bi aipatuko ditut. Behin entrenatzaile bati eguraldi eurtsuaz eta nire aholkuei kasu egin barik belarrezko zelaiaren entrenatzea bururatu zitzaion eta zelai guztia hondatu zuen. Bestea, 3. mailako partidua bat hasi aurretik zelaia pintatzeko tramankulua apurtu eta azken orduan eskuz pintatu behar izan nuen. Lerro guztiak oker oker zeuden eta epaileari gertatutakoa azaldu behar izan nion. Mondrak irabazi egin zuen.

— Ze giro bizi da Atxabalpen?

— Jokalari eta entrenatzaileen artean ona.

— Talde garbienak zeintzuk dira?

— Emakumeak eta lehen errejonalekoak.



## FUTBOLA Beste aukera bat Mondrarendako



Preferente mailako Mondrak azken neurketan jasotako lau goleko jipoa ahazteko beste aukera bat izango du domekan Atxabalpen. Arratsaldeko 5etan Mondrak eta Bergarak elkarren kontra neuruko dituzte indarrak denboraldiko 33. ihardunaldian Atxabalpen. Mondra une honetan 7. tokian dago 52 punturekin. Bergarak berriz, sailkapeneko 13. tokia betetzen du 39 punturekin. Lehen bueltan talde bien arteko partidua banako berdinketa nagusitu zen. Itxuraz irabazteko moduko partidua da, baina horretarako Arrasateko jokalariek aurkariak baino gehiagotan zultu beharko dute atea.

Emakumeek garaipen batekin esan diote agur denboraldiari. Iruñako San Juan taldearen kontra 1 eta 4 nagusitu zen Mondra. Orain Juanina Garaik zuzentzen duen taldearen helburua kopa izango da. Datorren omekan Bilboren kontra jokatuko dute arratsaldeko 5etan Bilbon..

## ATLETISMOA Laugarren postua Gipuzkoako txapelketan



Arrasate kirolak taldeak laugarren postua eskuratu zuen Taldeen arteko Gipuzkoako Txapelketan. Aurretik Reala, Atletico San Sebastian eta Jakintza sailkatu ziren. Banaka arrasatearrak nahiko emaitza onak lortu. Aitor Urizarrek Mailu jaurtiketan 42'84 metroekin bigarren postua

eskuratu zuen. Juan Carlos 400 metro hesitan, Unai Sarrabia 100 metroan eta Aier Arroia pisu jaurtiketan hirugarren postuan sailkatu ziren. 4X 400 errelebo proban Anguasek, Martinek, Sanchezek eta Davilak brontzeko domina lortu zuten 3 minutu eta 32 segundurekin. Pertikan Jonathan Perez 5. izan zen. Bestalde Enrike Kabiketa 10.000 metroan bosgarren. Bere denbora 33'31"26 ehuneneko.

## SASKIBALOA Lehen erronkan kale



Urbina Maltzaga azkenaldian jeitsierako play offa prestatzen ibili bada ere, zapatuan jokatutako lehen partidua ezin izan zuen Manresa gainditu. Kataluniako taldeak 75 eta 91 irabazi zuen. Arrasatek galtzeaz gain, itxura makala erakutsi zuen Iturripen. Emaitza horrekin aldatz gora jarri zaio kanporaketa Arrasateko taldeari eta datorren domekan ez badu garaipena lortzen, kilikolo izan dezake EBA ligan jarraitze aukera. Zapatuan arratsaldeko 7etan Manresaren kantxan jokatuko du Urbina Maltzagak.

## ESKUBALOA Bigarren partidua



Arrasate Eskubaloia taldea Kopan dago murgilduta buru belarri. Datorren domekan arrasatearren aurkaria Ordizia izango da eguerdiko 12etan Ordizian. Kopako bosgarren partidua jokatuko dute.

# Deba Arroako finalak eta urrezko eztaiaren ospakizunak egin ziren Iturripen

Deba Arroa txapelketako finalak jokatu ziren domekan Iturripen. Kadetetan Aretxabale-tako Erañak eta Alzolak Bergarako Muguruza eta Redondoren kontra neurtu zituzten indarrak. Bergararrak 22 eta 13 nagusitu ziren. Jubeniletan batetik Soralezuko Laskurain-Arrieta eta bestetik Elgetako Ubera-Antxia. Partidu lehiatsu eta bizia izan zen. Bikote biak 21 na tantura jarri ziren eta azken ahalaginean Plaentxia-

rrek asmatu eta eta irabazi. Seniorretan Bergarako Murua-mendiarazen eta Idiakezzen arerioak Elgetako Ubera eta Berrando. Azken emaitza, Bergarak 15 Elgetak 22.

Finalak jokatu eta txapelketak urrezko eztaiak bete dituzenez, azken 50 urte hauetan finalera heldu diren Arrasateko bikoteek omenaldia jaso zuten. Bertan Josean Tolosa pilotari ohia izan zen, Josean zuriz Arrasaten jantzi zelako.



Arrasateko pilotari ugari elkartu zen omenaldian.




Kadetetan Bergarako pilotariak izan ziren txapeldun.



Seniorretan Elgetak eraman zituen txapeldunak txaloak.

## Aerobithonean bi arrasatear irakasle

Urteroko zitari kale egin barik aerobic zaleek musikarekin gorputza nola mugitu daitekeen erakutsiko dute Donostiako Aerobithonean. Zapatuan arratsaldeko 5etatik 8ak arte, 800 lagunetik gora izerditan blai ikusteko aukera egongo da Pio Baroja kiroldegian. Aerobithona gidatzeko Euskal herriko bost aerobic irakasle aukeratu dira. Aurten Saioa Gimnasioko Jon Aranbarri eta Beatriz Rubio irakasleak aukeratu dituzte eta bakoitzak ordu erdian koreografia bat egin beharko du parte hartzaileek



Beatriz Rubio eta Jon Aranbarri Aerobithon irakasleak.

ikas dezaten. Jonek eta Beatrizek esan dutenez, eurek pentsatzen dute egin beharreko

koreografia eta eurek erabakitzen dute zein zailtasun jarri. Gutxi gorabehera aerobic kla-

seetan egiten dituzten ariketekin osatuko dute koreografia. Aerobithonera joateko sarre-rak 800 pezeta balio du. Jonek duela bi urte hartu zuen parte Donostiako proban eta 4. postua eskuratu zuen. Beatriz sailkapen nagusian 7. geratu zen. 1.000 lagun baino gehiago aurkeztu zirela kontuan hartuta postu bikainak lortu zituztela aipatu behar. Irakasle biek Eskoriatzan ere ematen dituzte Aerobic klaseak, eta maiatzaren 17rako beste Aerobithon proba bat antolatu dute Eskoriatzan.




## Hirugarren fasea bai ala ez?

**G**aldera hori hitzetik hortzera dabil Zaldibarko taldeetan. Bigarren fasera helduz gero, denen ilusioa hirugarrenera sailkatzea da baina horretarako bakar batzuk daukate aukera. Hau da, atera begira trebetasun handiena erakutsi duten taldeek. Falta diren bi ihardunaldietan beraz, argituko dira Zaldibarko kontuak.

## Hirugarren faseko taldeen banaketa

Hirugarren fasean lau taldeko lau multzo osatuko dira. Bigarren faseko multzo bakoitzetik lau talde onenek lortuko dute hurrengo faseko txartela.



<b>A:</b>	1A	2B	3D	4E
<b>B:</b>	1B	2D	3E	4A
<b>D:</b>	1D	2E	3A	4B
<b>E:</b>	1E	2A	3B	4D

## Laburrak

### ■ TXAPELKETATIK KANPO

Arrogoi taberna ez zen Okoretegiaren kontrako neurketa-  
ra aurkeztu eta ondorioz txapelketatik kanpo dago. Datorren asteburuan AC Surcosek atsedena izango du Arrogoi tabernaren kontra jokatu behar zuelako.

### ■ 6. IHARDUNALDIAN BADAGO ZER IKUSI

Zapatuan lau partidu interesgarri jokatu dira Zaldibarren. 12etan lider biak aurrez aurre: Naranja Mekanika eta Insert Coin. Arratsaldeko 3etan Cerveceria Leintzek KK Jaurlaritzari izango du aurrean. 6etan Adelaida Aldibi eta Fosforos. Adelaidak dagoeneko aukera gutxi du sailkatzeko. Azkenik

7etan Aurrera Bolie eta MSM Ingenieria Integral, bigarrena eta laugarrenean arteko partidua. Domekan bi norgehiagoka aholkatuko ditugu: eguerdiko 12etan Totemek eta Orlando Piratasek elkarren kontra neur-tuko dituzte indarrak. Ordu-batean berriz, Me la pela eta Diego Antonio izango dira nor baino nor.

### ■ TALDE BAKARRA SAILKATUTA

Bigarren fasea bukatzeko bi ihardunaldi falta direla, matematikoki talde bakarra dago hurrengo faserako sailkatuta. D taldeko Irati STSk bost partiduak irabazi ondoren, 10 puntu ditu eta sailkapeneko buruan dago hirugarren faseari begira.

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Fosforos	5	3	2	0	24	13	<b>8</b>
Aurea Bolie	5	3	1	1	24	14	<b>7</b>
Sortu Informatika	5	3	1	1	22	17	<b>7</b>
MSM Ingenie Inte	5	2	1	2	22	26	<b>7</b>
Abinagraus	5	2	0	3	17	19	<b>5</b>
Adelaida Aldibi	5	1	1	3	13	23	<b>4</b>
Txeyenex	5	1	1	3	21	22	<b>3</b>
Pepelus	5	1	1	3	15	24	<b>3</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	5	4	0	1	25	14	<b>8</b>
Insert Coin	5	4	0	1	22	16	<b>8</b>
Koka Juniors	5	3	1	1	22	16	<b>7</b>
AC Surcos	5	3	0	2	25	20	<b>6</b>
Orlando Piratas	5	2	1	2	23	14	<b>5</b>
Okoretegi	5	2	0	3	14	16	<b>4</b>
Totem	5	1	0	4	11	25	<b>2</b>
Arrogoi Taberna	5	0	0	5	8	28	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	5	5	0	0	45	10	<b>10</b>
Diego antonio	5	3	1	1	26	20	<b>7</b>
Galartza Konte	5	3	0	2	20	11	<b>6</b>
Me la Pela	5	3	0	2	22	16	<b>6</b>
Sokoakoak	5	2	1	2	29	32	<b>5</b>
Lorategi	5	2	0	3	24	35	<b>4</b>
Onaniereng	5	1	0	4	12	35	<b>2</b>
Los Innombrables	5	0	0	5	18	37	<b>0</b>

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Nuevo taberna	5	4	1	0	31	15	<b>9</b>
Cervecerai Leintz	5	3	0	2	25	18	<b>6</b>
KK Jauriaritzari	5	2	2	1	22	20	<b>6</b>
Betrayer	5	2	1	2	22	24	<b>5</b>
Bedarreta Taberna	5	2	1	2	18	18	<b>5</b>
Ke Oxtias	5	2	0	3	20	19	<b>4</b>
Jotakabau	5	0	3	2	20	23	<b>3</b>
Ojo avisore	5	0	2	3	19	382	<b>2</b>



## Emaitzak

### A taldea

Sortu Inf. 6 - Adelaida Aldibi 1  
 Pepelus 4 - Fosforos 5  
 Txeyenex 2 - MSM Ing. Int. 6  
 Abinagraus 5 - Aurea Bolie 3

### B taldea

Naranja Mekanika 2 - Totem 3  
 Insert Coin 4 - Orlando Pir. 3  
 Okoretegi 1 - Arrogoi Tab. 0  
 Koka Juniors 6 - Ac Surcos 3

### D taldea

Irati STS 12 - Onaniereng 2  
 Los Innombrables 8 - Sokoakoak 10  
 Lorategi 4 - Diego antonio 13  
 Galartza Konte 6 - Me la Pela 2

### E taldea

Betrayer 6 - jotakabau 6  
 Ojo Avisore 5 - Ke Oxtias 6  
 Cerv. Leintz 2 - Nuevo Tab. 4  
 Kk jauriar.2 Bedarreta Tab.a 5

## Hurrengo partiduak

### 6. ihardunaldia

Apirilak 26, larunbata


#### Zaldibar

8.50 Onaniereng - Sokoakoak  
 10.00 Txeyenex - Abinagraus  
 11.00 Jotakabau - Ke Oxtias  
 12.00 Naranja Mekanika - Inset Coin  
 13.00 Lorategi - Galartza Kontenedoreak  
 14.00 Irati STS - Los Innombrables  
 15.00 Cerveceria Leintz - KK Jauriaritzari  
 16.00 Okoretegi - Koka Juniors  
 17.00 Bedarreta Taberna - Nuevo taberna  
 18.00 Adelaida Aldibi - Fosforos  
 19.00 Aurrea Bolie - MSM Ingenieria Integral

Apirilak 27, igandea

#### Zaldibar

9.50 Betrayer - Ojo Avisore  
 11.00 Sortu informatika - Pepelus  
 12.00 Totem - Orlando Piratas  
 13.00 Me la Pela - Diego Antonio



**Montte**  
 EKIPAMENDU INTEGRALA • BARNE DISEINUA

Pablo Uranga, 1  
 Tel.: 79 38 22 • Faxa: 79 36 78  
**ARRASATE**  
 Poligono Industrial, 10  
 Tel.: 88 88 00 • Faxa: 88 88 07  
**BEASAIN**

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABAETA

Tel.: (943) 79 24 58

KARINA OCHOA eta MARGA FLORES (MEXIKOKO LAS BRUJAS ETA UNION DE

# “Emakume mexikarron aho”

**1** 994an Zapatisten Ejerzitoak Txiapasen egindako altxamendua, Mexikoren egoera politikoa eta ekonomiko latzaren erakusle izan zen. Orduetik hona, gobernuaren itsutasunaren eta gortasunaren aurrean, komunitate indigenek eta hirietan sortutako zenbait kolektibok bizimodu eta irtenbide alternatiboak ipini dituzte martxan egoerari aurre egiteko. Karina Ochoak *Las brujas*-eko D.F.ko mugimendu independenteko partaideak eta Magda Floresek *Unión de Pueblos Indios* nekazal komunitate indigenako partaideak, Mexiko eta emakume mexikarren egoerari buruz hitzegín digute.

**-Ze egoera bizi du emakume mexikarrak?**

**Karina:** Errealitate asko bizi dira Mexikon, horregatik komunitate batetik bestera, emakumeen egoera aldatu egiten da. Nekazal inguruetan, hitzegiteko, parte hartzeko

edota bozkatzeko eskubideengatik borrokatu behar izan dute emakumeek. Hirietan berriz, marginazioa oso nabaria da eta ikasteko eta lan egiteko aukera, gutxi batzuen esku dago.

**Magda:** Nekazal emakumeek oso ego-

era zailean gaude. Semeak, sukaldea eta lurra zaintzeaz gain, senarra eta gobernuaren exigentziak onartu behar ditugu. Orain emakumeek marginaziotik eta pobreziatik irtezteko eta gure kultura berreskuratzeko adorea izan dugu, gizonen eta emakumeen artean irtenbideak bilatzeko.

“Emakumeek konstituzioak onartu bai baina praktikara eramaten ez dituen eskubideen ejerzizioa lortu nahi dugu”





DE PUEBLOS INDIOS-EKO ORDEZKARIAK)

# otsa entzunarazi nahi dugu'

**-Zerk mugiarazten du urtean isilik eta marginatua egon den emakume indigena?**

**Magda:** Matxismoak eta batez ere alkoholismoak gure gizonengan eta gazteengan eragindako ondorioek zerbait egitera bultzatu gintuen. Alkoholismoak eraginda, emakume askok tratatu txarrak jasaten ditu. Egoera gaitzuzteko irtenbideak bilatu behar genituela argi ikusi genuen, gure buruari min egiten genion eta. Asanbladetan gure ahotsa entzunarazteko eta gizonak kontzientziazteko lan egiten dugu.

**-Zer eskaintzen dio emakumeak Mexikok bizi duen askapen mugimenduari?**

**Karina:** Orain arte izan diren mugimendu iraultzaile guztietan bigarren toki baten utzi dira emakumeen aldarrikapenak baina aldaketa prozesu honetan emakumeen papera oso garrantzitsua izan da. EZLNko emakumeek espazio oso garrantzitsuak lortu dituzte emakume mexikarraren eskaeren motorra izanik. Gutariko askorendako emakume zapatistak esanplu bat izan dira.

EZLNren indar armatuaren %30a emakumeak dira. Mugimendu indigenetan emakumeak jasaten du zapalkuntzaren pisurik handiena. Berak egiten dio aurre gobernuak zabalduetako alkoholismoari eta politika komunitarioaren eramale da.

**-Gizonak nola ikusten du emakumearen borroka?**

**Karina:** Herrialde askotan bezala erresistentzia fokoa daude, batez ere eskubiko

Lurratetik eta bizitzagatik borrokatzen dugun bezala, gure eskubideengatik ere borrokatu behar dugu.

**-Helburu zehatzak epe motzera?**

**Magda:** Gure ahotsa, gure aurpegiaren errekonozimendua. Politikan parte hartzeko eskubide berdina izatea eta konstituzioak onartu bai

**herriaren egoeraren aurrean?**

**Magda:** Gobernuak meatzuen bidez edo nekazarien pobreziaz aprobetxatuta botoka erosten ditu. Askotan emakumeak ez dituzte padroietan erregistratzen. Irtenbideak bilatzen lan egiten dugunoi gerrilero, narkotrafikante deitzen digute. PRIren politikak, populazioa txirotuz gutxi batzuk aberastea besterik ez du bilatzen.

**-Bi hilabete egingo dituzue laister gure inguruetan. Zer iruditu zaizue orain arte ikusitakoak?**

**Karina:** Bizi baldintzak hobekitu dira, baina emakume edo atzeritarren kolektiboen ganako marginazioa ere ikusten da hemen. Neoliberalismoak lehen munduko gizartearen homogeneizatu du. Zuen identitatea eta bizimodua eraikitzeko eskubidea kendu dizute. Zapalduetako lurraldeekin duzuen zorra ere ahaztu duzue. Ispilu bat izatea nahi dugu Mexiko, Europar Maastrichteko tratatua izan daitekeenaren esanplu da, hau da, bizitzeko alternatiba gabeko bidea. Mexiko eta Hegoamerikako hainbat herriaren borroka, duintasuna eta itxaropena bueltatzen dio munduari.


**“Ispilu bat izatea nahi dugu. Mexiko, Europar Maastrichteko tratatua izan daitekeenaren esanplu da, hau da, bizitzeko alternatiba gabeko bidea. Mexiko eta Hegoamerikako hainbat herriaren borroka, dignitatea eta itxaropena bueltatzen dio munduari”**

sektoreetan. Gure organizazioetan eta eguneroko bizitzan, aurrerapen handiak lortu dira baina oraindik konbentzimendu prozesu horretan jarraitzen dugu. Emakumeok dagokiguna hartu behar dugu.

na praktikara eramaten ez dituen eskubideen ejerzizioa lortzea. Lorpen guztiak extraofizialki ditugu, mugimendu sozialen bidez.

**-Gobernuak zer jarrera du**

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**Plus Ultra  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 79 20 57

**UGARTE**

**Industri  
hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00  
Fax: 793412


Sobradún antzerki taldea

# 30 millones de gilipollas

Sobradún antzerki taldeak bere azken lana eskainiko du bihar gauean 10.30etan Amaia antzokian: *30 millones de gilipollas*. Iazko urrian estreinatu zuten Gasteizko Printzipal antzokian eta takila sarrera barik uztea lortu zuten.

Sobradún taldeak "Hermínio y Miguelito" obrarekin ekin zion antzerkigintzari eta harek izan zuen arrakasta ikusita, estilo bereko bigarren obra sortzera ausartu dira. *30 millones de gilipollas* umore garratz eta kritikoz beteta dago eta antzezlanak irauten dituen 90 minutuetan, gaur egun pilpolean dauden gaiei buruzko erreflexioa da protagonista.

**FUTBOLAREN ABSURDOA**  
Antzerki talde gasteiztarrak futbolarekiko dagoen obsesioa eta afizioa hartu du abiapuntutzat bere bigarren obran. Espainiako eta Brasilgo selekzioen arteko futbol partidu bat telebistan eskaintzen den un-



Gasteiztarrak dira Sobradún taldekoak.

an garatzen da istorioa. Kaleak hutsik daude eta Espainia osoko biztanleak telebista aurrean. Luis Briñas izeneko bat kalean doa bere bizitzari betirako agurra eman nahieran, baina beste zenbait pertsonarekin egiten du topo: saltzailerekin, pizza banatzaile-

leekin, travestiekin... hor hasten da istorioa.

Aktoreak hiru dira: Gorka Aginagalde, Ion Gabella eta Iñaki Rodaballo. Pertsonaiak berriz, hamairu. Jantziz aldatzeko nola moldatzen ote diren ikusteko aukera, bihar gauean.

## 100.000 pta.ko saria San Juanetako kartel lehiaketan

Arrasateko Udalak San Juanetako kartel lehiaketarako deialdia egin du eta aurten 100.000 pta. etxeratuko ditu irabazten duenak.

Kartelaren ezaugarriei dagokionez, iazko berdinak direla esan behar. Kartela 50x70 zentimetrokoa izan beharko da eta derrigorrez bertikal formatokoa. Disketean aurkeztu ahal izango da, Din A3 tamainako paperean inprimatua. Teknika librea da baina kartelak 1997 SAN JUAN JAIK ARRASATE edo 97 SAN JUAN JAIK ARRASATE testua eraman behar du derrigorrez.

Kartela egin ondoren hauek izango dira jarraitu beharreko pausoak: egilearen nortasuna azaldu barik, atzealdean lema jarrita aurkeztu kartela eta horrekin batera, sobre itxi batean, lema bera eta egilearen datuak. Lanak entregatzeko azken epea maiatzaren 23a da eta Udaltzeko Kultura Sailera bidali edo eraman beharko dira.



## URONDO Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76



## BAD F-LINE, MUSIKA TALDEA

# “Gure maketa ez dugu salgai jarri inork ez lukeelako erosiko”

Talde bat baino, musika proiektutzat dute eurek Bad F-Line taldea. Pako, Txema, Iñaki eta Rakel dira taldeki-deak eta abenduan grabatu zuten lehen maketa. Ordenadoreetan sortutako soinueta oinarrituta dagoen lau abestietako maketa ez dago salgai inon. Iñaki Bengoaren ustez, sampler eta ordenadoreekin egindako musikak ez du oraindik lekurik hemen.

### — Zer da Bad F-Line?

— Ez da ohiko musika talde bat, proiektu bat baizik. Bi lagun hasi ginen, Txema eta biok eta gero beste bi lagun laguntza izan genuen, Pakorena eta Rakelena. Gure konposizioen oinarria ordenadoreak dira. Ahotsa eta kitarra ere erabiltzen dugu baina batez ere ordenadoretik ateratako soinu efektuak dira nagusi. Pelikula ezagunetako tartek ere entzun daitezke gure konposizioetan, *Alien*, *Blade Runner* edota *Sonrisas y lágrimas* filmeetakoak adibidez. Gure taldeak antz gutxi dauka ingurukoekin.

### — Ordenadoreetan oinarritzen bazarete, non geratzen dira musika tresnak?

— Ordenadoreetan oinarritzeak ez du esan nahi instrumenturik erabiltzen ez dugunik. Baxua erabili dugu eta ahotsa ere sartu dugu. Ahotsa Rakelek

eta *Brutal Melody*ko Anerrek jarri dute.

### — Musika estiloren baten barruan zaudete?

— Industrial edo Dance estiloen barruan, baina nire ustez Dance estilotik gertuago gaude. Gure musika sample eta ordenadoreetan oinarritzen delako da Dance edo Industrialia.

### — Zein gai jorratzen dituzue zuen konposizioetan?

— Egia esan, hainbat pertsonairen testuak hartu eta moldatuz egin ditugu letrak. Panero, Burroughs, Rucker, Crowley eta Benni-ren testuak erabili ditugu. Pertsonaia berezi samarrak dira, Burroughs adibidez, munduan droga gehien probatu duen gizona da eta Crowley pertsonaia sataniko bat. Gure gaiak kritikoak direla esango nuke, baina ez ohiko talde punkiek edo heavyek egiten dituzten erara.

### — Maketa saltzeko asmorik?

— Ez, ezin da saldu hemen inork ez lukeelako erosiko. Oso musika desberdina da, arraroa. Lagunen artean banatu ditugu maketa batzuk eta irratira eta prentsara ere bidali ditugu. Baita disketxe batera ere. Proiektu experimental bat da, eta gainera, maketa ez dago oso jorratuta. Akaso aurrerago, zerbait landuagoa egiten badugu, komertzializatuko dugu.

## aste gazte

### ■ DIPUTAZIOKO UDALEKUAK ETA OPORRALDIAK

• 18-29 urte arteko gazteentzat, kirol abentura Huescan, Leridan, mendi travesia Aigues Tortesen, Iparralde mendi bizikletaz, ingeles egonaldiak... inskripzio epea: ekainaren 2tik 27ra

### LANA

• Donostiako Udalak, lanpostu batzuk bete nahi ditu; trafikoko laguntzaile teknikoak, kartografi digitalizazio teknikoak, administrazio eta idazkaritzako arduraduna, dokumentazio/enplegurako goi mailako teknikaria, trafikoko goi mailako teknikaria, bideetako ingeniaria, industri ingeniari teknikoak eta erdi mailako trafikoko teknikaria. Epea: deialdia EBOan argitaratu zain gelditzen da.

### IKASTAROAK

• Egiaztatzaile mekanikoa eta trokelgintza ikastaroak, LH II ikasketak eginda dituzten langabetuei zuzenduta, IRAUNKOREK antolatuta. Maiatzetik aurrera. Matrikula doan.

### UDAKO IKASTAROAK

• EHU-UPVk, udako ikastaroen programa plazaratu du. Izena emateko epea, maiatzaren 8an hasi eta matrikula kopurua bete arte izango da.

### IKASTARO GAZTEAK

• Sakontze mailako saltza ikastaroa. Maiatzaren 21tik San Juanak arte, astelehen eta asteazkenetan, 7etatik 9ak arte. Matrikula, 4.000 pta/ 2.500 ikasle eta langabetuentzat.

Informazio gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Hiru solairuko etxe zaharra salgai. Oñatiko alde zaharrea kokatuta eta 107 m<sup>2</sup>koa. Prezio interesgarria. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera deitu.

• Erdialdean dagoen etxea salgai. 4 logela, 2 komun, saloi eder bat eta garaje itxia. Tel.: 79 42 13.

• Gasteiz erdian atikoa salgai. Egoera onean. Tel.: 79 01 26. Gauzez deitu.

• Aretxabaletan pisua salgai. Erreformatuta eta erdi jantzita. Tel.: 79 25 71. Dei egin denda ordutegian.

• Juan Carlos Gerra plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 41 48.

• Pisua salgai Izarra dorrean. Tel.: 65 37 21.

### 2. Erosi

• Deba Garaian 60 m<sup>2</sup>ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gauzez. Tel.: 79 23 60.

### 3. Errentan emateko

• Playa de San Juanen (Alikante) pisua alokatzen da. Astebete, hamabost egun eta hilebeteka. Tel.: 79 49 98.

• Etxea errentan emateko daukat Kontzeziñon. Tel.: 79 55 20.

• Duplex-a alokatzen da Zarautzen. Txukuna eta hondartzatik 200 metro-ra. Prezio egokia. Tel.: 83 56 36.

• Pisua alokatzen dut erdialdean. Tel.: 79 59 96. Dei egin 8etatik aurrera.

### 4. Errentan hartzeko

• Alokatzeko pisu bila nabil Arrasaten. Tel.: 79 77 32 / 79 97 55.

• Etxebizitza alokatuko nuke ahal balitz Zigarrolan. Tel.: 79 02 66. Igo-ne.

• Arrasaten pisu bila nabil. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan ordutan. Amaia.

### 5. Etxe konpartituak

• Pisu konpartitu baten gela bat nahi dut. Tel.: 79 96 10.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

### 9. Errentan emateko

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Garaje itxia alokatzen da Uribarri etorbidearen 3an. Tel.: 79 33 48.

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Musakolako kiroldegia ondoan lokal komertziala salgai. 76 m<sup>2</sup>. 8.300.000 pta. Negoziagarriak. Tel.: 79 59 75.

### 14. Errentan emateko

• Arrasaten erdigunean lokal komertziala saldu edo errentan ematen da. Ferrerías kalean, 72 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 97 86.

### 15. Errentan hartzeko

• Lokala alokatuko genuke lagun artean erabiltzeko. Tel.: 79 35 50.

### 16. Bestelakoak

• Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun neska gertu, denda, atarte edo tabernak garbitzeko. Tel.: 79 64 46.

• Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

• Esperientzia eta arduradun emakume pertsona nagusiak zainduko

lituzke. Tel.: 79 05 90.

• Arratsaldean lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanetan. Tabernetan lan egiteko ere gertu nago. Tel.: 79 77 79.

• Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 94 62.

• Klinika laguntzailea eta geriatrian titulodun andra pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

• Emakume gaztea gertu etxea, atarteak edo bulegoan garbitzeko. Tel.: 79 59 75. Agus.

• Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 945 - 44 52 79.

• Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

• Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 79 31 44. Gauzez.

### 18. Eskaerak

• Arrasateko ileapaindegí batean estetizita behar da. Tel.: 77 07 66.

• Neska behar da tabernan baten lan egiteko. Deitu 3etatik 5etara. Tel.: 79 00 34.

• Hiru edo lau hilebeterako elektrizitza bat behar dut tentsio baxuko berifikazioak egiteko. Tel.: 907 41 89 71. Santi.

• Kamareroa behar da. Tel.: 79 68 57.

• Emakumea behar da igandetan lan egiteko, Autoa beharrezko da. Tel.: 79 47 85.

### 19. Bestelakoak

• Gazte talde batek ezkontzatan abestuko luke. Oso merke. Tel.: 79 79 85.

• Jaunartze eta beste ospakizunetan soinua jotzeko prest gaude. Dantza eta giro ederra preziorik onenean. Tel.: 79 51 20 Igor eta 79 24 85 Jon. Gaueko 9etatik aurrera.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Alemaneko klase partikularak eman edo itzulpenak egingo nituzke. Tel.: 71

63 05. Eguerdiko 13etatik aurrera.

• Esperientziadun neska larunbat goizetan klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 06 39.

## 21. Eskaerak

• Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsalde edo gauez. Tel.: 79 55 04.

• Zergatan aditua den laguna behar da eskolak emateko. Tel.: 79 32 54. Iñaki.

• 3. BUP eta 1. LOGSEko matematika eta fisika klase partikularrar behar ditut. Tel.: 79 66 56.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Renault 11 TXE salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Vespa 200 motorra salgai. VH. Tel.: 76 08 51.

• Yamaha Virago 1.100 motorra salgai. SS-AJ. 1990 urtekoa. Extra asko ditu eta egoera onean dago. 700.000 pta. Tel.: 79 61 89.

• Opel Kadet GSE salgai. SS-X. Prezio interesgarria. Tel.: 79 74 10.

• Opel Corsa GT. Tel.: 79 93 75 / 79 22 50. 8 urtekoa. Egoera ona.

• Renault 11 TX autoa salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Renault 11 TXE, SS-X salgai. Tel.: 79 22 85. Mikel.

• Suzuki DR2. 50 z<sup>m</sup> salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Bultaco Cross 350 motorra salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Renault 5 GTL salgai. SS-P. Egoera ona. Tel.: 79 81 35 / 77 93 30.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, erubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Ingalaterrara bidaiar 170.000 pta.tan. Amaia. Tel.: 79 53 58.

• Cibro markako berogailua eta Fagor markako ur berogailuak salgai. Tel.: 79 81 25. Gauez.

• Soprani markako soinua daukat salgetzeko. Tel.: 79 82 06.

• Butaka relax salgai. Tel: 79 22 92.

• Zapatak konpontzeko aintzinako makina salgai. 100.000 pta. Tel.: 79 81 70 / 71 50 72.

• Aluminioko bizikleta salgai. XT piezak ditu. 50.000 pta. Tel.: 79 70 96. Felix.

• 4/5 lagunendako kanpinerako Sango markako karro-denda salgai. Tel.: 79 15 96.

• Harategiko 3 gondola, kuttxa erregizatzailea, markatzeko 2 makina, pisu elektronikoko, okindegiko mostreadorea eta dendetarko tresna gehiago salgai. Merke-merkeak. Tel.: 79 59 75.

• Igloo markako denda salgai. 5 lagunendako. Egoera onean dago. 8.000 pta. Tel.: 71 52 38. Maider.

• Auto barruan umea eramateko aukia salgai. Tel.: 79 44 14. 8etatik aurrera deitu.

• Macintosh Classic ordenadorea eta inprimagailua salgai. Tel.: 36 03 89.

## 27. Erosi

• Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badaukazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 17 88. Karmen.

• Bigarren eskuko argazkiak proiektatorea erosiko nuke. Tel.: 79 55 88.

## 31. Galdu

• Eroskiko aparkalekuan zapi urdin bat topatu baduzu dei egin 71 44 56 telefonora. Esker ordaina egongo da.

## 32. Aurkitu

• Poltsa bat aurkitu nuen Urkulun, apirilaren 29an, zapatua. Jabeak, gaueko 8etatik 10etara deitu dezake. Tel.: 77 00 18.

## HARREMANAK

### 36. Deialdiak

• 38.urteko kintoei deia: Urte hone-tan egiten ditugu 80 urte eta uste dugu denak elkartzea eta bazkari on bat batekin eguna pasatzea gauza ona izango zela. Animatu antolatzen! Angel Erguin. Tel.: 28 57 15.

Kolore natural  
eta ekologikoak.

Gizon, emakume eta  
umeendako arropa naturalak.

Dendaraba • GASTEIZ  
Tel.: (945) 14 27 58




NATURAL FASHION



MODA NATURALA

## ■ Matilde Martin

SANTAMAINAKO AUZO-ALKATEA



**4** 5 urte ditu eta iazko urriko hauteskundeetatik Santamainako alkatea da PSE-EE alderdiaren aldetik. Ezkonduta dago eta bi alaba ditu. Extremadurako Quintana de La Serena herrian jaio zen baina bost urterekin Arrasatera etorri zen. Gaur egun Iturbide egoitzan egiten du lan garbitzaile gisa.

1. Zein da zure horoskopoa? Piscis.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Katu pertsiarra.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Egoneza/Ulerkortasuna.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Korrupzioak.
6. Amets bat? Pakea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gaiztakeria.
8. Gertakizun historiko bat? Ikurriñaren aldeko borroka.
9. Nor miresten duzu? Nire familia.
10. Zeri diozu beldurra? Zahartzaroari.
11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz bereziki.
12. Negar egin duzun azken aldia? Jane Eyre pelikula ikusi nuenean, hunkitu egin ninduen.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Jende nagusiarendako ekintzak.
14. Eta zuri? Hitz gutxitan esateko gauza asko.
15. Lanbidez aldatzekotan? Abokatu.
16. Arrasateko gustoko toki bat? San-

ta Barbara.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Amari bere bila joan behar nintzela esan, eta gero lagun batekin bazkaltzera joan.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Diario Vasco*.
19. Gustoko janari bat? Arrain zopa.
20. Liburu on bat? Agatha Christieren guztiak.
21. Filmerik onena/tzarrena? *Jane Eyre/Superman*.
22. Musika talderik onena/tzarrena? Juan Pardo/Julio Iglesias.
23. Telebistako programarik onena/tzarrena? *Quien sabe dónde/Lo que necesitas es amor*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Portzelanazko panpin bat.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Telebista ikusten eta irakurtzen.
26. Oporretarako toki bat? Venezia.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Janaria prestatzea.
28. Gomendio bat? Ulerkorra izan.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Ez.
30. 200 milioi irabaziz gero? Lana utzi eta bidaiatu egingo nuke.

# ERRENTA AITORPENENA 96


Informatu. Aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.

 **Zenbaki**

Basabe Industrialdea, Pab. C • ARETXABALETATel.: 79 88 75 / 79 75 99 • Faxa: 77 10 29



**TELEMATIKA:**

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.





Euskal Herrian gutxienez 17 asun mota ezagutzen dira.

# Asunak: aldi berean gizakiaren etsai eta lagun

Europa osoan ugari da asuna, toki lehor zein umeltsuetan hasten da arazo barik. Euskal Herrian ere, nonahi ikus daitezke asunak, eta 17 bat mota badaude: tente tenteak, bizartsuak, kirten ertz askodunak, goi-goian lore-multzo ederrak erakusten dituenak. Batzuk osagai aberatsak izan daitezke; beste batzuk ez.

Sendagai moduan duten baloreagatik baino, asunak ezagunagoak dira ikutuz gero ematen

duten zaxtasunagatik. Orrien kirten gainean sustantzia kimiko bat izaten dute, hazgurea ematen duena.

Industrian dezente erabiltzen da asuna, klorofila ateratzeko batez ere. Istamina dauka landare honek, eta baita beste osagai garrantzitsu batzuk ere, K bitamina adibidez.

Baserrietan eta euskaldunen artean, hain ugaria izanda, erabilera handi samarra eman zaio asunari. Hesteen gorabeheretarako oso ona da, baita odol jarioak lehortze-

ko ere, eta zer esanik ez erreumari aurre egiteko. Dauden mota guztien artean, bat bereiztekoan, zaparta-bedarra deritzona aipatu behar: beste asunen antzerakoa, baina zuriagoa eta bere ostozak ez dute hazkurarik ematen. Zauriak sendatzeko eta sabeleko minetarako erabili da asko. Asun mota honen orriak jatekoak modukoak dira, baina beti ere loraz jaten hasi baino lehen. Erleek oso estimatua dute asun mota hau.

## Euskerien txokoa

### JOLASTU edo JOKATU?

Gure belarrixek zenbat sufriruten dauien?. Egunero entzuten dogu “futbolien jolasten dau”, “txarto jolastu dogu pelotan”... eta horrelako mordue.

Edozein kirol praktikan dogunien, beti JOKATU ebal behar dogu.

“futbolien jokatu dogu, pelotan jokatu bijuek, tenisien jokaketan juek,.....”

Dirua jokutzen da, karta jokuan, edo antzeko jokuetan be, JOKATU ebal behar dogu.

Baina, noz ebal behar dogu JOLASTU, jolasean ibili (olgetan ibili)? Umiek jolasien ibiltzen dira, lagunekin, edo brometan, e.a. Umien jolasak, haur-jolasak, jolas-parkeak... horreik guztiok ondo pasetako ebalten dira.

Beraz, ez ebal inoiz JOLASTU, hauek esateko: futbolien, saskibolien, eskubaloiien, pelotan, tenisien, ..., izan be, jokoak, kirola, lehiaketa esan gura dauielako, eta hor JOKATU ebal behar dogu beti.

Kontuan hartu kirolean dihardutenak jokalariai dirala; hortaz, JOKATU kirolean.

**Jokatu-rekin:** jokalaria, jokaldia, jokalekua, jokaetxea, jokabidea, jokaera, jokakidea

**Jolastu-rekin:** jolasaldia, jolasgaraia, jolaskidea, jolastokia, jolaslekua, jolasordua.

Asmautako esaerak: “Umeak jolastu, denekin ahaztu”, “dirua jokatu, burua nekatu”.

Karmelo Uribarren



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

## ■ Horoskopoa

- **Aries** Egun handiak datozkizu. Lasai hartu.
- **Taurus** Eman lehen urratsa, gero bigarrena eta segi aurrera.
- **Gemini** Egunitan zure nahi guztiak beteko dira.
- **Cancer** Ahaztu tristurak, bizitza ez da hain garrantza.
- **Leo** Zer duzu gordeta bihotzaren sakoan?
- **Virgo** Haserre egonda, belarrietatik ere kea aterako zaizu.
- **Libra** Berokia oso ondo geratzen zitzaizun, baina neguan.
- **Scorpio** Oporretan alaiago egotea normala da. Orain lanera.
- **Sagittarius** Askok kostatzen zaizu kontzentratzea, zergatik?
- **Capricorn** Itxuraz aldatu beharko zenuke monotoniatik irtetzeko.
- **Aquarius** Hainbeste pentsatu, ideiek ere ihes egingo dizute.
- **Piscis** Ez jarri hainbeste traba, zabaldu bihotzeko atea.

## ■ Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6		7
8						9	
10					11		
12				13			
14			15				
16							
17				18			

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Ignacio, PSE-EEko zinegotzia. 8. Ase denaren egoera. 10. Bizkaiko udalerrria. 11. Pertsona batek nahigabe egiten duen higidura azkar eta errepikatua. 12. Garau. 13. Bedatu aditzaren infinitiboa. 14. (Ald.) Besteen gainetik nabarmentzen dena. 16. Uzurtu, zapaldu. 17. Kristoren ondoren laburdura. 18. (Ald.) Erne.

**Bertikalak** 1. Dagoeneko. 2. Isilean dagoena edo egiten dena. 3. Ergel. 4. Euskadi eta Askatasuna. 5. Nafarroako ibilgailuetan. 6. Astearen laugarren eguna. 7. Gehien ordaintzen duenarentzat egiten den salmenta publikoa. 9. (Ald.) Indiako irla, kolonia portugesa izan zen. 13. Zerbaiten ondorioa adierazteko erabiltzen dugun lotura-hitza. 15. Asiako ibaia, Txina eta Kazakstanen.

**Horizontalak:** 1. Jimeno, 8. Asetasun, 10. Dima, 11. TIK, 12. Aie, 13. Bada, 14. (Ald.) Galen, 16. Iklidu, 17. KO, 18. (Ald.) Iarne.

**Bertikalak:** 1. Jadanik, 2. Isileko, 3. Memelo, 4. ETA, 5. Na, 6. Ostegun, 7. Enkante, 9. (Ald.) Diu, 13. Bada, 15. Ili.

Langileak eraso bortitzak jasatzen ari gara:

- Pentsio murrizketak.
- Lan erreforma.
- ETTen ugaltzea.

Honen aurrean... langileak mobiliza gaitzen.

Maiatzak 1 eguerdiko 13:00tan  
Seberotik manifestazioa.

**LAB**



## Arrasateko euskalkiaren etorkizuna aztergai

Datorren asteazkenean Gure Objektibotik mahaingurua izango da Arrasate Telebistan gaueko 9etan. Ion Iñaki Lasak aurkezten duen saioan, Arrasateko euskalkiaren etorkizuna aztertuko dute hainbat gonbidatuk.

Gaur egungo euskalkiaren osasuna aztertu eta beroren diagnostikoa egin ondoren, aurrera begira izan dezakeen etorkizunaren inguruan mintzatuko dira.



Jon Iñaki Lasak aurkezten du Gure Objektibotik saioa.



Aitor Elkoro ATBn egongo da astelehenean gaueko 9.30etan.

## Aitor Elkoro pilota txapelketako finalista Mondrasport saioan

Mondrasport saioan luxuzko gonbidatu bat izango da datorren astelehenean. Aitor Elkoro pilotari elgetarra maiatzaren 11n Donostiako Atano III. ean jokatu duen

finalari buruz arituko da solasean Itxaro Zubillaga eta Esti Loitirekin batera. Finalaren aurrean Elkorok duen animoa ezagutu ahal izango dugu.

## Arrasate Irratia FM 107.7

### Egunero

9.00 Albisteak  
9.30 Goizoro magazina  
14.30 Bixau orduan

### Astelehena

9.30 Iluntzean Berriketan (Almeneko ikasleak)  
22.00 Caravanserai musika saioa

### Asteartea

9.30 Iluntzean Berriketan (Almeneko ikasleak)  
22.00 Euskal Festa

### Asteazkena

22.00 KK2A

### Ostirala

22.00 KGB informatika saioa

### Larunbata

9.30 Jailarai umeendako saioa  
10.00 Bi zoro eta zu (magazina)  
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

*Oharra: Zubia dela eta, Arrasate Irratiak ostegunean ez du emitituko.*

## ■ ATBko asteko programazioa

18 Ostirala	21 Astelehena	22 Asteartea	23 Asteazkena	24 Osteguna	25 Ostirala
20/20.30/21.00 <b>Berriak</b>	13.30 <b>Astebete (Errep.)</b>	13.30 <b>Mondrasport (Errep.)</b>	13.30 <b>Lotsa Barik (Errep.)</b>	Ez da emisiorik egongo.	Ez da emisiorik egongo.
21.30 <b>Astebete</b>	20/20.30/21.00 <b>Berriak</b>	20/20.30/21.00 <b>Berriak</b>	20/20.30 <b>Berriak</b>		
	21.30 <b>Mondrasport: Elkarrizketa Aitor Elkoro pilotariari</b>	21.30 <b>Lotsa Barik</b>	21.00 <b>Gure Objektibotik: Arrasateko euskalkia galbidean da?</b>		

**B**ere sorreraren 25. urteurrena dela eta, Orkatz Skaut taldea ospakizunetan sartuta dabil aste osoan zehar. Mende laurden horretan makina bat jende pasatu izan da Skaut taldetik, baina gaurko argazki zaharraren tartera, hasierako arduradun batzuren irudia ekartzeko aprobeztatuko dugu.

San Viator Skaut taldeko Koskorren arduradunak dira argazkikoak, sarri moduan mendiko ibilaldi batean. Argazkia Santa Luzian egindakoa da eta okasiorako arduradunak dotore dotore eta irrifartsu jarri ziren.

Atzeko enbor gainean dagoena Iñaki Uriarte "Txikiño", bere azpian eta ezkerrean Luis Gorospe, eta honen ondoan, ikurrari helduta, Floren Zabaleta. Beherago dagoen hirukotea, ezkerretik hasita (gorroduna) Jose Manuel Matute, Kontxi Gallastegi eta Pili Garmendia. Azpiko lerroan, berriz, txapelaz jantzita dagoena Jose Julian Diaz de Landaluze da, eserita dagoen betaurrekodun neska Amaia Aranzabal eta belauniko dagoena Mikel Garai.



Urtea: 1973.

Informazioa: Andoni Villar.


Argazkia: Andoni Villar.

## LASA JATETXEA



**OZAETA JAUREGIA**  
(Bergarako  
hegoaldeko irteera)

Monumentu  
artistikoa.



Tel.: 76 10 55 • **BERGARA**

**EZKONTZARAKO  
JANGELA ZABAL ETA  
APROPOSA**

**PARKING PRIBATUA.  
TERRAZA  
ETA LORATEGIA**

### Aste honetako **DEGUSTAZIO MENUA**

Ahate gibela etxeko terrinan  
urdai ogiarekin

Izokiaren tosta holandarra

Txangurroz betetako legatz-solomoa

Orein gisatua gaztaina pure, sagar eta arakatz  
memeladarekin

Kafe biscuit-a txokolate beroarekin

Ogia eta 3 urteko litro 1/2 ardo edo  
litro 1/2 ur mineral

Kafea eta petit four-ak

**Prezioa: 5.100 + BEZ (%7)**

Sobradun antzerki taldeak aurkezten du:



**Amaia antzokia**  
**Apirilaren 26an (larunbata)**  
**Gaueko 10.30etan**  
**Sarrera: 800 pta.**  
(Gazte Txartelarekin 600 pta.)

**30**  
MILLONES  
DE  
GILIPOLLAS



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# OPEL VECTRA BERRIA



## ARTEA MUGIMENDUAN



### SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamentako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

### ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektua. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2,5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

### BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

**OPEL VECTRA BERRIA.**

**ARTEA MUGIMENDUAN.**

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu Oficiala **ARRASATEN**

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

**OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.**